

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Kultura Zerbitzua

2021ean kultur proiektuei eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdi publikoa eta horren berriazko oinarriak

2021eko otsailaren 26an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021ean Gasteizen gauzatzeko diren kultur proiektuei eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta horren berriazko oinarriak.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 9an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE

2021ean kultur proiektuei eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdia arautzeko berriazko oinarriak

2020ko abenduaren 11n egindako aparteko bilkuran onetsi Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2020ko abenduaren 30eko ALHAOn argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke — www.vitoria-gasteiz.org —, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

1. Dirulaguntzen ildoak

Kultur proiektuei eta finkatutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzak.

2. Deialdiaren xedea

Hiriko kultur eskaintza zabaltzen eta hobetzen lagunduko duten kulturaren arloko sustapen-, sorkuntza-, prestakuntza- eta zabalkunde-ekimenetan laguntzea.

Dirulaguntza jasoko duten kultur proiektuek irekiak izan beharko dute, udalerrian garatu eta gauzatu beharko dira, eta gasteiztar guztiei zuzenduak izan beharko dute; esperientzia berriak izan ahalko dira, edo lehendik dauden programa, ekitaldi eta jaialdiei jarraipena eman, eta kulturaren arloren baten barrukoak izan beharko dute: prestakuntza, sormena, zabalkundea, ikerketa.

Aurkezten diren proposamenetan ezingo da sartu Gasteizko Udalak onetsitako udal planei kalte egingo liekeen ekintzarik*, ezta ordenamendu juridikoak babesten dituen oinarriko eskubideetako edozein urratzea lekarkeenik ere, hartara pertsona guztien eskubide eta askatasunak errespetatu daitezken.

* [Gasteizko Udalaren berdintasun-plana, gazte-plana, mugikortasun-plana, irisgarritasun-plana, herritarren partaidetzaren plana, araudi grafikoa, hizkuntza-normalizazioaren arloko araudia eta abar, zein webgunean kontsulta baitaitezke.]

3. Eskatzaileak

Lurralde historikoaren ezaugarriak eta Arabako Kultura Plan Estrategikoaren (Arabako Foru Aldundiak sustatua) eta Gasteizkoaren (Gasteizko udalak sustatua) arteko koordinazioa direla-eta, pertsona eta entitate eskatzaileek Arabako Lurralde Historikoan izan ahalko dute helbidea, betiere oso-osorik betetzen bada deialdiaren xedea (aurreko puntua).

4. Kontzeptuak

Bi kontzeptutarako emango dira dirulaguntzak. Entitate bakoitzak proiektu bat eta bakarra aurkeztu ahalko du.

Batzorde teknikoak izango du aurkeztutako proiektu bakoitza zein kontzeptutan definitzeko ahalmena.

1. Hirian erreferente diren edo bertan kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen, jaialdi eta egitarauak, edozein alorretan delarik ere (arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, letrak, folklorea, arte plastikoak edo beste), betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak. Zuzkidura ekonomikoa: 175.000,00 euro.

2. Dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, bizitza kulturala bultzatzera, kultura integrazio eta gizarte-kohesiorako balio gisa garatzera, kulturaren alorrean garapen pertsonala garatzera (jakituria eta sormena sustatuz) eta abarretara zuzenduriko jarduera eta programak, betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak. Zuzkidura ekonomikoa: 25.000,00 euro.

Baldin eta kontzeptu baterako zenbatekoa agortzen ez bada, soberako diru-kopurua beste kontzepturako baliatu ahal izango da.

5. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Hezkuntza eta Kultura Saileko Kultura Zerbitzuaren 2021eko ekitaldiko aurrekontuko 23.12.03.3341.489.33 partidako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira —gehienez 200.000,00 eurokoa da horren zuzkidura—.

6. Aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliiodunekoa izango da, oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

7. Eskabideak aurkeztea

Gasteizko Udalaren web-orrian agertzen den eredia baliatuz aurkeztuko da eskabidea, agiri hauekin batera:

Pertsona fisikoa izanez gero: Eskatzailearen nortasun-agiriaren fotokopia. Ordezkarriak izanez gero, eskaria izenpetzen duenaren ordezkari-tza-ahalmenaren egiaztatzea.

Pertsona juridikoa izanez gero: Elkarre edo entitate eskatzailearen legezko ordezkaria den pertsona fisikoaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta haren ordezkari aritzearen egiaztatzea.

Entitatearen eskrituren edo estatutuen fotokopia. Eta, behar izatera, Eusko Jaurlaritzaren Elkarrean Erregistro Nagusian eta dagokion erregistro publikoan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

Proiektu bat erantsi beharko zaio eskabideari. Gidoi hau proposatzen da hori egiteko:

- Proiektuaren oinarriak.
- Helburuen formulazioa.
- Proiektuaren deskribapena.

- Metodologia.
- Jardueren zerrenda.
- Jardueren egutegia.
- Jardueren kokalekua.
- Nori zuzenduta dagoen.
- Aurreikusten den parte-hartzaile kopurua (kopurua eta talde zehatza) eta publiko mota.
- Baliabide materialak eta giza baliabideak.
- Beste kolektibo batzuen inplikazioa.
- Ebaluazio-irizpideak.
- Jarduera ezagutarazteko baliabideak edota sistema.

Eta aurrekontu xehea:

- Gastuen zerrenda.
- Diru-sarreraren zerrenda, barne hartuz eskatutako, aurreikusitako nahiz jasotako bestelako dirulaguntza edo laguntza ekonomikoak, izen-ematearen bitartez jasoko direnak eta abar.

Nahitaez proiektua eta aurrekontua erantsi beharko zaizkio eskabideari, oinarri hauetan ezarritako eran eta epeetan.

Eskabide hutsa aurkezten bada, proiektua eta aurrekontua erantsi gabe, ez da tramitera onartuko.

Dirulaguntza-deialdi honetarako ez da onartzen dirulaguntzen oinarri orokorren 10. atalean adierazitako eskabidea birformulatzea.

8. Balioespen-irizpideak

- Originaltasuna, berrikuntza, proiektua sendotzea: 15 puntu.
- Proiektuaren izenburua eta garapena: 15 puntu.
- Proiektua gauzatzean eta jarduerak ebaluatzean baliatuko diren oinarriak, helburuak eta metodologia.
- Proiektuaren kalitatea eta interesa, kulturaren ikuspegitik: 50 puntu.
- Proiektuaren garrantzi kulturala: 15 puntu.
- Eragin kulturala hirian: 10 puntu.
- Proiektuaren onuradunak: zuzendua dagoen kolektiboa, parte-hartzaileen kopurua: 10 puntu.
- Barne- eta kanpo-komunikazioa: 5 puntu.
- Proiektuan inplikaturako beste kolektibo batzuk: 10 puntu.
- Bideragarritasun ekonomikoa: 5 puntu.
- Efikazia baliabide ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak esleitzean.

Adibideak: ekintzak, jarduerak, euskarak entitatearen irudian duen lekua (webgunea, sare sozialak, irudi korporatiboa...), entitateak euskararen normalizaziorako bultzatzen dituen neurriak (adibidez: langileak, begiraleak eta bestelako laguntzaileak kontratatzean euskara jakitea baloratzen da...).

- Genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzen garapena: 5 puntu.

Adibideak: gizon eta emakumeen presentzia orekatua proiektua burutzean, prestakuntza berdintasunaren alorrean, kontratazio-irizpideak, indarkeria sexistari erantzuteko kanpainarik abiaraztea edo halakoren bati babesia ematea.

– Tolerantzia eta kultura-aniztasuna sustatzen dituzten ekintzen garapena: 5 puntu.

9. Dirulaguntza jaso ahal izateko programa bakoitzak gutxienez lortu behar duen puntu-kopurua

Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehienez eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 50 lortzen dituzten proiektuak aukeratu dira.

10. Dirulaguntza emateko prozedura

Norgehiagoka bidezko prozedura baliatuko da dirulaguntzak emateko.

Norgehiagoka bidezko prozeduran, dirulaguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, hartara lehentasun-hurrenkera ezartze aldera —6. artikuluan adierazitako irizpideen arabera— eta puntuaziorik handiena lortzen duten eskabideei emango zaizkie dirulaguntzak, beti ere deialdiaren berariazko oinarrietan finkatuko aurrekontu zuzkiduraren kopurua inola ere gainditzen ez badu.

Behin gutxieneko puntu-kopurua lortuta (50 puntu), programa bakoitzari emango zaion dirulaguntzaren zenbatekoa eskuratu duen puntu-kopuruaren araberakoa izango da, taula honen arabera:

1. kontzeptua: Programari emandako puntuak:

75 puntu baino gehiago	Dirulaguntzaren zenbatekoa: 12.000,00 eurotik 15.000,00ra artean
60 eta 75 puntu artean	Dirulaguntzaren zenbatekoa: 4.000,00 eurotik 10.000,00ra artean
50 eta 60 puntu artean	Dirulaguntzaren zenbatekoa: 500,00 eurotik 4.000,00ra artean

2. kontzeptua: Gehieneko zenbatekoa, proiektuko. 4.000,00 euro.

11. Ez da dirulaguntzarik emango honelakoetarako

- Gasteizko udalerritik kanpo gauzatzen diren proiektuak.
- Helburu nagusizat ez kultura sustatu eta zabaltzea, baizik eta beste batzuk —sozialak, kirolaren arlokoak, erlijiosoak, politikoak, osasunaren arloak...— dituzten proiektuak.
- Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren proiektuak.
- Dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan ez baizik eta beste batean gauzatuko diren jarduera edo programa kulturalak prestatu edo alde aurreko lanak egitea xede duten ekintzak.
- Proiektuaren garapenetik zuzenean eratortzen ez diren gastuak.

12. Programa edo jarduera bakoitzari gehienez emango zaion dirulaguntza

Proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 70ekoa izango da dirulaguntza, gehienez ere. Dirulaguntzaren zenbatekoak inolaz ere ezingo du gainditu 15.000,00 euroko kopurua 1. kontzeptura aurkeztutako proiektu bakoitzeko, edo 4.000,00 euroko kopurua 2. kontzeptura aurkeztutako bakoitzeko.

Hautatutako proiektuetako bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa erabakitzeke, lortu dituzten puntuazioen arabera banatuko da deialdiko kreditua. Ez da inolaz ere gaindituko Kultura Zerbitzuari eskatutako diru-kopurua, eta beti ere aurreko atalean finkatutako muga errespetatuko da.

Aurreko atalean adierazitako aurrekontua onesteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Jarduera edo proiektua garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuek nahitaez 2021ean eginak izan beharko dute, eta eskuratze-kostuak inolaz ere ezingo dira izan merkatuko baliotik gorakoak.

Ezingo da diruz lagundu daitekeen gastutzat jo BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta eskatzailea zerga horren aitorpena egitera behartuta badago.

Baldin eta elkarte eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan aurreko atalaren ildotik diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, ez dira zenbatuko 1. atalean kontuan hartuko diren gastuak —diruz lagundu daitezkeen gastuak— zehazterakoan.

Elkarte onuradunak azkenean gauzatzen duen aurrekontua aurkeztu duena eta onartu zaiona baino txikiagoa egokitzen bada, dagokion proportzioan murriztuko zaio dirulaguntza. Horrek bietako bat ekar lezake: edo jasotako dirulaguntzaren zati bat itzultzea (dagozkion atzerapen interesekin batera) edo bigarren ordainketaren kopurua murriztea.

13. Dirulaguntza justifikatzeko modua

1. Dirulaguntzak berariazko oinarri hauen goiburuan aipatutako oinarri orokorren 13. atalean xedatutakoari jarraituz justifikatuko dira. Bertan aipatzen diren eranskinak Udalaren webgunean daude eskuragarri, betetzeko moduko formatuan.

Lau hilabeteko epean justifikatu beharko dira jasotako dirulaguntzak, programa edo jarduera amaitzen denetik kontatuta, edo ematen denetik aurrera kontatuta, gauzatu ondoren emandakoa bada.

2. Deialdi honetan ez da zeharkako kosturik onartzen, beraz, 5-J eranskinean ez da kontzeptu horri dagokion atala bete behar.

3. Dietak.

Baldin eta dietarik ordaintzen bazaio proiektuan artista, hizlari, etab. gisa parte hartuko duen norbaiti, 6-J eranskina bete beharko da (holako pertsona bakoitzeko eranskin bana).

Kilometraje-gastu gisa ez da onartuko kilometroko 29 zentimotik gorakorik.

4. Ez dira diruz lagunduko:

a) Entitatearen lokalerako ondasunak erostera edo konpontzera bideratutakoak.

b) Entitatearen mantentze- eta funtzionamendu-gastuak.

14. COVID-19a

Antolatzen dituzten eta dirulaguntza jasotzen duten jarduera edo ekitaldi guztietan agintari sanitarioek unean-unean xedatutako neurriak bete eta betearazteko konpromisoa hartu beharko dute beren gain entitate onuradunek.

Gaur egungo osasun-pandemiak (COVID-19a) eragindako ziurgabetasuna dela eta, dirulaguntza aldatzea baimentzerik izango da bertan aurreikusi gabeko jarduerak egiteko, betiere dirulaguntzaren xedearekin lotuta badaude, horren xede eta helburuei funtsean eragiten ez badiete, eta agintari sanitarioek kasu bakoitzerako hartzen dituzten neurriekin bateragarriak badira.

Aldatzea erabaki behar izanez gero, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak egingo du, entitateak hala eskatzen duelarik. Nolanahi ere, jarduerak gauzatzeko epea bukatu aurretik egin beharko da eskabidea.